



Hau da aste honetako euskararen pilula!

Prokuradorearekin hartu-emanetan euskaraz

Nola eman euskaraz alderdiekin hartu-emanak izateko erabiltzen den esamolde hau? *se entenderán las sucesivas diligencias*

Sarri erabili ohi den esaldi bukaera, prokuradorea izendatzerakoan, baina ez bakarrik kasu horretarako

se entenderán las sucesivas diligencias = berarekin egingo (gauzatuko) dira hemendik aurrerako eginbideak

Adibide batzuk:

- Se tiene por parte a dicho/a procurador/a, con quien *se entenderán las sucesivas diligencias*= Prokuradorea alderditzat hartzen da, eta *berarekin gauzatuko dira hemendik aurrerako eginbideak*.
- con el que *se entenderán las sucesivas diligencias* en la forma predeterminada en la ley, bajo la dirección letrada = letraduaren zuzendaritzapean, eta *hemendik aurrerako eginbideak berarekin egingo dira* legean aurreikusita dagoen moduan.
- Se tiene por personado al expresado compareciente, con quien *se entenderán las sucesivas diligencias*= Pertsonatutzat hartzen da aipatu den agertutakoa, eta *berarekin egingo dira hemendik aurrerako eginbideak*
- Se tiene por personado en el presente recurso al indicado representante, *con quien se entenderán las sucesivas diligencias* = Errekurtso honetan pertsonatutzat ematen da zehaztutako ordezkaria, eta *berarekin gauzatuko dira hemendik aurrerako eginbideak*

ITURRIA

[Euskalterm](#)

Epaitegietako lexikoa eta eredu judizialak